

Hil daitezela lehenbailehen...



raingoan gure txalaparta errelebo honi laugarren kide bat arrimatu zaio –Pedro Alberdi– eta bisitari soila bada ere ongi etorria eman nahi nioke. Josi eta Juanjo, onartzen badidazue, Pedrori ere erantzutea gustatuko litzaidake hemendik.

Jakina nik ere “gozatu” dudala inoiz Axularren prosa irakurriz. Nork ukatuko dio bere “kolorrea”, bere periodo luze bezain malgua, eta abar? Eta Bilboko Arriaga Antzokian egingo den irakurketara hurbiltzeko aukerarik banu joango nintzateke, kuriositate hutsagatik bada ere. Haatik...

Esaten duzu lurralde berria aurkitu zenuela euskal klasikoak irakurtzean. Kontua da, behar bada, ez garela belaunaldi berekoak eta nik hogeitau urte nituenean zuk adin bera zenuenean baino aukera gehixea ematen zizkidala, jada, euskal literaturak nire irakurketa gosea asetzeko –bereziki prosaren arloan.

Iban Zalduak berriki Renoko unibertsitatean eman duen hitzaldi batean zioenez (ez da itzulpen zehatza): “Gure literatur tradizioaren ahuleziak pertsonaia literario sasi historiko zein testu zahar apokrifoz osaturiko sare bat osatzea eragin du. Gure tradizioak ez gaituenez asebetetzen, idazleek, Borges imitatuz, amestuko luketen tradizio bat asmatzeari ekin diote”.

Horren adibiderik argiena Joseba Gabilondok ipuin batean asmaturiko autoreak litzateke (Martín Benítez de Cearreta), zeinak idatzi balituzke –euskaraz, noski– geroa Shakespeare-enak bezala ezagutuko ziren testu guztiak.

Benetako galdera hau da, Axular baten irakurketak euskaraz *literatura* idazteko gogoia piztu ahal dezake? Nago ezetz. Klasi-kozalea izan arren, Arestik berak ez al zuen



DANI BLANCO

Ur Apalategi

Basterretxea

Olasagarre

aitortu Miranderen irakurketa egin ez balu ez zatekeela euskaraz idazten hasiko?

Ni ere banaiz irakasle, eta Axular irakasteari behar-beharrezkoa deritzot, euskal prosagintza modernoaren erro linguistiko-estilistikoak hor baitaude, dudarik gabe. Eta historiak gisa ere gomendatuko nuke Axularren irakurketa.

Baina literaturzale gisa gutxi esan dezaket bere alde. Arriagan antolatuko den irakurketan deseroso jartzen nauena, funtsean, ez da Axular irakurraraztea, baizik eta ekintzak daukan Don Kixoteren irakurketa jarraikiarekiko antzekotasuna. Axular ez baita, tamalez, gure Cervantes.

Esaten da norbaiti hanka bat mozten diotenean jarraitzen duela eskas duen hanka hori sentitzen, bere tokian jarraituko balu bezala. Bada, euskal literaturzaleoi are gauza

bitxiagoa gertatzen zaigu, inoiz izan ez dugun gorputz atalean –literatur klasiko unibertsala– min dugula.

Baina zer egingo zaio, min horrekin bizitzera kondenatuak gaude. Ez dakit inoiz autore benetan unibertsalik izatea lortuko dugun, baina klasiko “nazional” duinak lortzeko bidean gara. Pena bakarra zera da, oraindik berriegiak direla biharko gure klasikoak, eta bizirik dirautela berauen autore gehienek. Lehenbailehen hil daitezela itzarotea baino ez zaigu

geratzen. Esaterako, berak eskatu moduan lurpean gordeko dugun egunean bertan proposatuko diot Euskaltzaindiako literatur batzordeari Txomin Agirre eleberrari sariari Ramon Saizarbitoria izena jartzea. ■

Erredakzioaren oharra: Artikulu hau Pedro Alberdik 24. orrialdean idatzitakoa irakurri ostean eginga da.

Arriagan antolatuko den irakurketan deseroso jartzen nauena, funtsean, ez da Axular irakurraraztea, baizik eta ekintzak daukan Don Kixoteren irakurketa jarraikiarekiko antzekotasuna. Axular ez baita, tamalez, gure Cervantes